

Ostatu beka

Uda Ikastaroak eskaintzen duen ostatueta (hotelak izan ezik) ostatu-beka hurrengo **baldintzekin** eskatu ahal izango da:

- **Ostatu beka bakarra** emango da ikasle eta edizio bakoitzeko.
- Laguntza eskabideak heltzen diren **hurrenkeran** emango dira **aurrekontu horniketa** amaitu arte.
- **Eskaera:** Aukeratutako ikastaroan izena ematean "Ostatu Beka" sakatuz. Erabakia emailez komunikatuko da.
- **Zenbatekoa:** Ostatu beka 20€koa da ikastaroa irauten duen egun bakoitzeko eta ezin du fakturaren zenbatekoa baino gehiago izan.
- **Gain hartutako datak:** Bezperatik azkeneko eguna arte kontuan hartuz.
- **Norentzat:** "Murrizketa orokorrak" eta "Salbuesteak" ataletan dauden guztientzat jarduera jorratuko den lurraldean bizi ez direnean.
- **Beka ordainketa:** Ikastaroa bukatu eta gero 15 eguneko epean faktura helarazi behar da. Asistentzia egiaztatu eta gero Uda Ikastaroak ordainduko du bekaren kopurua eskaeran jarritako kontuan.
- **Salbuespenak:** Kongresuek eta Jardunaldi Profesionalek EZ dute ostatu bekarik.